

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatu-segmentazioa marka batek erabiltzen duen marketin-estrategia bat da, merkatuan ezaugarri bereziak dituen produktu ezberdin bat diseinatu eta saltzean oinarritzen dena. Merkatu-segmentua kontsumitzaile talde jakin bat da, non produktu ezberdinak zuzentzen dira beraiantzat.



Munduan bezeroen-segmentazioaren arabera 5 merkatu mota daude. Lehenik eta behin merkatu masiboa dago eta hau antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia da. Merkatu-nitxoa berriz, bezero oso zehatzak eta bereizituak dituen segmentua da. Baita ere segmentatutako merkatua dago eta hau behar eta arazo zertxobait ezberdinak dituzten merkatu-segmentuak bereizten dituzten negozio-ereduak dira.

Azkenik, dibertsifikatutako merkatua eta plataforma edota merkatu aldeaniztunak daude. Dibertsifikatutako merkatuan, oso bestelako produktuak eskaintzen dira zeharo ezberdinak diren eta elkarren artean loturarik ez duten bezeroen segmentuei eta plataforma edota merkatu alde-aniztasunetan oinarria ezberdinak dira, baina bata bestearen mendekoak diren erabiltzaile-segmentuak negozio-eredu beraren pean lotzen dira.



Enpresaren merkatu segmentazioa, merkatu masiboa da. Guk saltzen ditugun objektuak oso errepikakorrek dira eta etxerako erabiltzen dira: dekorazio bezala, erabiltzeko... Gure bezeroak dira munduari lagundu nahi duten pertsonak eta lehenago erabili ziren gauzak berriro erabiltzea nahi dutenak. Baita ere, Unicef-ekin lan egitea lagundu dezake beste ONG batzuk gerturatzea eta beraiekin kolaboratzea, eta horrela diru gehiago irabaztea eta beste herrialde batzuetan denda gehiago eta handiagoak irekitzea.



Enpresak dituzten bezeroen ezaugarriak honakoak dira:

- Gauzak erabili eta berriro ez erabiltzea
- Material asko alferrik galdu
- Produkzioa oso merkea eta salmenta oso garestia
- Kalitate txarra
- Kontaminatzaileak

Gure enpresak dituen bezeroen ezaugarriak onakoak dira:

- Gauzak berrerabiltzen ditugu
- Ez dugu materiala alferrik galtzen
- Produkzioa eta salmenta ez dira oso garestiak
- Gure bezeroetan pentsatzen dugu
- Oso gertukoak gara dendan

